

BOSTGARREN GAIA: EPAILE AGINTEA

EZ DA AZTERKETAN SARTZEN (ZUZENBIDE PROZESALEAN HONI BURUZ SAKONDUKO DUGU).

(Liburuko 2.bolumena, 30.kapitulua 620.or-639.or)

5.1. EPAILE AGINTEA KONSTITUZIOAN

- Botereen banaketa eta epaile agintea: liskar juridiko bat gertatzen denean ahalmena erabakitzeko hura bideratzeko aplikatu behar den lege-xedapena.
 - Epaileek duten agintea erabakitzeko zein den aplikatu behar den lege-xedapenak esan nahi du epaileak boterea duela interpretatzeko aplikatu behar den lege-xedapenak zer esan nahi duen
 - ⇒ Liskarrak legearen arabera ebazteko eta, beraz, legeak esan nahi duena zehazteko.
 - Epaileen aurrean eskubideak aurkezteko herritarren oinarrizko eskubide gisa: Konstituzioaren 24. art. OINARRIZKO ESKUBIDE HORREK BADU BEREZITASUN BAT EDUKIARI DAGOKIONEZ, Europa osoan eta bereziki honetan Estrasburgoko auzitegiak garrantzia izan du, bi aldiz epaileen aurrean babestuta izateko eskubidea; bi alditan epaitua izateko edukia izan behar duela, lehen beheko mailan kokatzen den auzitegia (normalean auzitegi honetan esperientzia gutxiko epaileak daude) jardungo da eta auzipetu direnak maila honetan epaitu denarekin bat badatoz hor bukatuko da bestela bigarren instantziara (esperientzia handiagoko epaileak, sendotasun handiagoa, ibilbide gehiago...) joango dira errekurtsu bidez.

Bi aldi horietan maila ezberdineko auzitegiak gaitasuna dute auzia bere osotasunean berriro epaitzeko.

Horrek ez du esan nahi auzi bat soilik bi aldiz epaitu ahal dela, gehiagotan epaitu dezake, baina eskubide honen barnean non lehen 2 instantziak ditugu, hemen bai epaitu dezake 2 aldiz auzi osoa lehen 2 instantzietan baina 3 instantzia batean ezin da auzi osoa berriro epaitu, aurkeztu daitekeen errekurtsuak mugatuak daudelako, Kasazio errekurtsu (Auzitegi Gorenean) bat aurkeztu daiteke soilik *“por infracción de ley o quebrantamiento de forma”*. Babes errekurtsu (Auzitegi Konstituzionalean) bat aurkeztu daiteke soilik konstituzioak aldarrikatzen dituen oinarrizko eskubideren bat urratu dela uste bada.

Azkenik, Estrasburgo-ko auzitegira joateko errekurtsuak ere badaude.

- Epaille agintearen garrantzi demokratikoa: sistema demokratikoen zutabe nagusienetako bat.
 - Botere publikoa zuzenbidearen mende badago, nork esan behar du Zuzenbideak zer agintzen duen? Botere independente gisa itxuratutako epailleek.
 - Zergatik epailleek? Interes politikoetatik at, haien erabakiak zuzenbidean baizik oinarrituko ez dutenak.

5.2. EPAILE AGINTEARI BURUZKO PRINTZIBIOAK

- Epaille agintea itxuratzen duten printzipioak (Espainiar Konstituzioaren 117.artikulua)

. Justiziaren oinarri demokratikoa:

- Justizia herriarengatik dator.
- Epaille eta magistratuek epaitzen dute.
- Erregearen izenean.
- Epaille eta magistratu independente, mugiezin eta erantzule dira (Espainiar Konstituzioaren 117.1.artikulua). Hain sakon bermatu nahi izan da epaileen independentzia nola orain oso zaila da epailleek egindakoagatik erantzukizuna eskatzea.
- Legearen agintera baino ez daude menderatuak.
- Epaileen independentzia. Hau bermatzen da epaileak mugiezinak direla bermatzean (epaile batek edozein auzia eramaten duela ezin da bere postutik kendu legeak esaten duen prozedurak jarraituta ez bada).

. Epaille agintea aginte berezia eta bakarra:

- Epaille eta magistratuei dagokie, soilik, epaitzea (epaitzeko ahalmena): epaitzea eta epaitutakoa betearaziz.
- Dagokien epaiketa edo prozesuen bidez.
- Legeek zehaztutako epaitegi eta auzitegiei dagokie.
- Legeek ezarritako eskumen- eta prozedura- arauak zehazten dutenaren arabera.
- Epaitegiek eta auzitegiek ez dute beste eginkizunik beteko

. Epaille agintearen batasuna:

- Legeak ezarritako epaille arrunta.
- Epaille-ahalmen berezirik ez.
- Epaille-ahalmena eremu militarrean: hertsiki eremu militarrean eta setio-egoeretan.
- Aginte bakarra Estatu osoan (ez bi lerro bereziak, sistema federaletan bezala)

. Epaileen independentzia:

- Epaileen independentzia alderdikierarik ezaren berme gisa.

- Espainiar Konstituzioaren 127.artikulua: epaileek eta magistratuek ezin beteko dute bestelako kargu publikorik jardunean diren bitartean.
- Ezin izango dira ezein alderdi politiko nahiz sindikatutako kide .
- Epailen bateraezintasun-araubideak haien independentzia osoa segurtatzea izango du xede.

Epailen erantzukizuna: Epailak erantzule dira haien jardunean egindakoetatik eta sortutako kalteengatik

. Epailen buruzko printzipioak:

- Epailak publikoak izango dira.
- Prozedura, nagusiki, ahozkoa izango da batez ere auzi kriminaletan.

5.3. EPAILEAREN ESTATUTUA

- Epailak ezin izan daitezke kargutik mugituak izan, legeak ezartzen duenaren arabera baizik.
- Epailak badute bateraezintasun-araubide oso zorrotza eta badituzte debekatutako eginkizun ugari
⇒ epailen independentzia eta alderdikierarik eza bermatzeko xedearekin.
- Immunitatea: ezin dira atxilotuak izan dagokion epailen erabakiaren arabera ez bada edo delitua egiten ari direnean.

5.4. EPAILE AGINTEAREN ANTOLAMENDUA

- **Espezializazioaren printzipioaren arabera:**
 - Lau epaile-eremu: zibila, penala, administrazioarena eta lanarena. Jurisdikzio militarren kasu berezia
- **Lurraldearen arabera:**
 - Udal-barrutia, auzitegi-barrutia, probintzia eta Autonomia Erkidegoa.
 - **Udal-barrutietan**, Bake epaitegia (Lehen epai-mailako epaitegirik ez dagoenean). Arlo zibilean, munta txikiko auzietan; arlo penalean, hutsegiteak (faltak) epaitu. Erregistro Zibila.
 - **Auzitegi barrutietan** (legeak ezarrita, probintzia bateko zenbait udal barruti biltzen dituztenak): Lehen epai-mailako epaitegia(k) (arlo zibilean); instrukzio epaitegia(k) (arlo penalean); emakumeen kontrako indarkeriari buruzko epaitegia.
 - **Probintzian:** Probintziako Auzitegia (Gela Penala eta Gela Zibila). Merkataritza arloko epaitegia(k). Arlo Penaleko Epaitegia(k). Administrazio Arloko Epaitegia(k). Lan Arloko Epaitegia(k). Espetxe-Zaintzarako Epaitegia(k). Adingabeen Epaitegia(k).

- **Autonomia Erkidegoetan:** Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia (Gelak: Zibila, Penala, Administrazio Arlokoa, Lan Arlokoa).
- **Estatuan:** Auzitegi Nazionala. Epaitegi Zentralak: Instrukzio, Penala, Administrazio Arlokoa eta Espetxe-Zaintza.
- Auzitegi Gorena, Espainia osoan epai-ahala duena, salbu konstituzio-bermeei dagokiena. Gelak: Zibila, Penala, Administrazio Arlokoa, Lan Arlokoa eta Militarra.
- **Hierarkia irizpidearen arabera:** Gorago kokatzen diren epaitegiei edo auzitegiei dagokie behekoek emandako epaiak berretsi, deuseztatu edo aldatu ditzakete, dagokien errekursoen edo eskabideen bidez.
 - Goragoko hierarkian kokatua izateak ez die auzitegiei ahalmena ematen behekoei aginduak igortzeko. Eskabideen bidez bakarrik erabaki dezakete behekoak epaitutakoa berriro epaitzen.

5.5. EPAILE AGINTEAREN GOBERNUA: KONTSEILU NAGUSIA

- Epaille-agintearen autogobernua, Ministerioak izaten ohi zituen eskumenak organo independente bati esleitzen dizkiola (Espainiar Konstituzioaren 122.2 artikulua).
 - Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia: gobernu-organoa.
 - Lege organiko batek zehaztuko ditu haren estatutua eta eginkizunak.
 - Honako kideok osatuko dute: presidentea eta hogeita hiru kide, bost urtetarako izendatuak. Hamabi, epaille eta magistratuen artetik izendatuak; lau Kongresuak proposatuta eta beste lau Senatuak, bostetik hiruko gehiengoz aukeratuak abokatu nahiz bestelako legelarien artetik, gaitasun-sonaren jabeak eta lanbidean hamabost urtetik gora jardunik

5.6. EPAILE AGINTEAREKIN LOTUTAKO BESTELAKO ERAKUNDEAK

- Fiskala
- Polizia Judiziala
- Autonomia Estatua eta Epaille-Agintea

